

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Eguzkideak enpresan argi daukagu funtsezko jarduerak ezinbestekoak zaizkigula gure ekonomia-garapena aurrera eramateko eta enpresaren arrakasta bermatzeko. Horretarako, gure produktuaren muina sortzeko ideia bera eta haren erabilera originala direla kontuan hartuta, utz genezakeen produktuaren ekoizpena beste enpresaren baten esku, baina hor ere parte hartu nahi dugu, baita beste zenbait zerbitzutan ere, gure prestakuntza handia aprobetxatuz.

Ekoizpenari dagokionez, horren zati handi bat beste enpresa batzuegandik, hau da, hornitzaileengandik jasoko dugula baldin badakigu ere, gure enpresaren berrikuntza garrantzitsuena dena, produktu bereziak bateratzea alegia, geure kabuz egitea dela egokiena uste dugu. Horregatik, enpresa osatzen dugunon ezagutza baliatuko dugu hornitzaileei erositako elementuak produktu bakarra bihurtzeko: gure eguzkitako berezia.

Bestalde, bezeroen harremanetan xedatutako zerbitzuak ere gure kabuz ematen ahaleginduko gara, horiek ere ezin baititugu besteen esku utzi. Beraz, arazoak konpontzeko zerbitzua geuk emango dugu, eta baita gure web orriaren sorkuntza, kudeaketa eta bezeroarekin harremanak izatea ere. Are gehiago, enpresa sortu-berria garela jakinik, bai baitakigu ez dugula baliabide nahikorik kanpoko enpresa batzuei ordaintzeko zerbitzu horiek gure partez egin diezazkieten kontsumitzaileei.

